BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

2925

EBAZPENA, 2012ko ekainaren 6koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskadiko kirol-federazioen 2012ko kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzen ebazpen-proposamen bat eman eta organo honi aurkeztuko dion Batzorde Kalifikatzaileko batzordekideak izendatzen dituena, eta batzorde horren osaeraren berri ematen duena.

Ikusirik Euskadiko kirol-federazioen 2012ko kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia arautzen duen 2012ko maiatzaren 8ko Agindua.

Ikusirik Euskal kirol-federazioen kirol-programetarako diru-laguntzak ematea arautzen duen 2000ko abenduaren 26ko 287/2000 Dekretua.

Kontuan izanda aipatutako Dekretuaren 7. artikuluak alde batetik, aurkezten diren eskabideak eta dokumentazioa aztertzeko eta organo honi aurkeztuko dion ebazpen-proposamen arrazoitu bat emateko Batzorde Kalifikatzaile bat osatuko dela adierazten duela; eta bestetik, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak Kirol Zuzendaritzako bi teknikari izendatuko dituela batzordekide gisa esaten duela.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Batzorde Kalifikatzailearen kideak izendatzea eta batzorde horren osaeraren berri ematea. Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Patxi Mutiloa Aldazabal (Kiroletako zuzendaria).

Batzordekideak:

● Elisabet Altube Bengoa (Kirol Zuzendaritzako arduradun teknikoa)

● Carolina Muro Arroyo (Kirol Zuzendaritzako teknikaria), batzordeko idazkari lanetan jardungo duena.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 6a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.